

MASKULINITATEAK: mutilen desboteretzea

- Ibai Fresnedo -

Hezkidetza Jardunaldiak
ALBOAN

TESTUINGURATZEA

ZER DA MASKULINITATEA?

- Balio maskulinoekin loturiko rol, jokabide, espektatiba, pentsaera eta sentimendu desberdinen multzoa da.
- Maskulinitatea gorputzetan, portaeretan eta gizarte-harremanetan eragina duen efektu-multzoa da, eta ondorioz, genero-subjektu maskulinoaren sortzaile (jaiotzetik zakila dutenen kasuan, genero sozializazioaren bidez).
- Generoaren kosmobisio edota kultura partikularra (subkulturatzat, feminitatea). Kultura patriarkalaren posizio gorenean kokatzera eramango gaituena.

ZERGATIK MUTILEN DESBOTERETZEA?

MASKULINITATEA vs. MUTILEN DESBOTERETZEA:

- Maskulinitatea lantzeaz harago joatearen premia dugu. Maskulinitatea ez baita mutilen jabetza soilik. Beraz, genero-adierazpenetan baino genero-subjektuetan jarri beharko genuke fokua.
- Zergatik mutilekin maskulinitatea eta ez feminitatea? Izan ere, mutilen artean ez badiogu feminitateari lekurik ematen, berriz ere, FEMENINOA-ren ukazioa eragin dezakegu.
- Neskekin feminitatea lantzen dugu? Ez, ahalduntzea edo boteretzea.

ZERGATIK MUTILEN DESBOTERETZEA?

- Horregatik, logika berdina txertatuz (eta estruktura sozialak kontuan hartuz), mutilen desboteretzea beharko luke gure lanketa edota prozesuen abiapuntua. Lanketa paraleloak!
- Prozesu/lanketa hauetan “Ahul(dun)tzeari” eta “zaurgarritasunari” erreferentzia zuzena egitearen beharra.
- Mutilekin prozesu indibidualak zein kolektiboak abiatzearen beharra.
- Maskulinitatea lantzean maila indibidualean zentratzen gara, estruktura zein subjektutasun sozialean zentratuak, aldiz, kolektiboan.
- “Mutil/gizon” bezala sozializatutako subjektuak zuzenean interpelatuak dituelako eta hauen jendarte posizio botereduna azpimarratuak duelako.

OROKORREAN, KONTUAN HARTZEKOAK:

- Maskulinitate “BERRI”, “ALTERNATIBO” edota “EZ HEGEMONIKO” kontzeptuak alboratzearen beharra (hezkuntzan ere).
- Hezkuntzan generoen arteko desberdintasun egoeraren atzean dagoen BOTEREAREN ulerkeran, banaketan, erabileran eta honen transmisioan eta erreprodukzioan azpimarra jartzearen beharra.
- KONTUZ politikoki zuzena den hiztegi lagunkoiarekin: bizikidetzaren, aniztasuna, tolerantzia, integrazioa, berdintasuna,...
- *Berdintasuna* eta *parekidetasuna* desberdintzearen beharra: lehenengoak neskak eredu maskulinoen estandarretara gerturatzea ekarri baitigu. Eta ez kontrara, mutilak eredu femeninoetara.

OROKORREAN, KONTUAN HARTZEKOAK:

- Neskekin zein mutilekin lanketa paraleloak egitearen beharra, bai. Baina zeren arabera? Sexuaren arabera, genero-adierazpenen arabera ala genero identitatearen arabera? Interseksionalitatea ardatz hartuta, bestelako zapalkuntzen arabera ere lanketa desberdinak egiten ditugu?
- Askotan “mutil” bezala sozializatutako haurrak eta gazteak nola interpelatu ez dakigu eta parekidetasunaren paradigmaruntz erakarri behar ditugu.
- Mutilek, seinalamendutik bizi dute lanketa bera; hau, oinarrian, zapalduaren edo zapalketaren logikatik abiatzen dugulako. ARDURAtik abiatu behar dugu, ez IKUSLE ERRUDUNaren roletik.

Beraz...

**Maskulinitatea(k)
ala
gizontasuna(k)?**

MASKULINITATEA:**honen sozializazioa + gorpuztea = GIZONTASUNA****Familia nuklearra****Komunikabideak****GIZARTEA****Hezkuntza formala +
ez-formala****Berdinen taldea**

**Itxura
EZ IZAN****Indarra
EZ SENTITU****Indarkeria
BOTEREA MANTENDU**

GIZONTASUNA, IDENTITARIOKI UKAZIOAN ETA BESTETASUNEAN ERAIKITZEN DA!




GENEROEN ERAIKUNTZA SINBOLIKOA DIKOTOMIEN BIDEZ

- AKTIBOA/PASIBOA
- BABESLEA/BABESTUA
- PRODUKTIBOA/ERREPRODUKTIBOA
- ZAINDUA/ZAINZAILA
- SUBJEKTUA/OBJEKTUA
- DESIRATZAILA/DESIRATUA
- EDUKIA/EDUKIONTZIA
- PROBOKATUA/PROBOKATZAILA
- ADIMENTSUA/EMOZIONALA
- HELDUA/HELDUGABEA

GENEROAREN OPERATIBILITATEA DOMINAZIO-SUMISIO LOGIKAPEAN!


MASKULINITATE TOXIKOAREN EZAUGARRIAK

- AUTONOMIA ETA INDEPENDENTZIA:
zaurgarritasunaren eta dependentziaren
ukazioa
- INDIBIDUALISMOA ETA LEHIAKORTASUNA
- BABESLEA/HEROIA/GERLARIA
- INDARKERIAREN NATURALIZAZIOA eta
INSTRUMENTALIZAZIOA HARREMANETAN
- HORNITZAILEAREN PAPERA ETA
ENPLEGUAREN GARRANTZIA



- ANPUTAZIO ETA ERREPRESIO EMOZIONALA
- AUTOZAINZAREN ETA BESTEEN ZAINZAREN
UKAZIOA + ARRISKUAREN KULTURA

MASKULINITATE TOXIKOAREN EZAUGARRIAK



- HOMOFOBIA eta MISOGINIA
- PROTAGONISMOA ETA INBASIOA
- OROJAKITURIA ETA BETI ARRAZOIA
SENTIMENDUEN GAINETIK
- FEMENINOAREKIKO DESMARKATU eta
EMAKUMEAK KULPABILIZATU
- EMAKUMEA “OBJEKTU” BIHURTZEA
- ANAITASUN MASKULINOA edo KORPORATIBISMOA
- PRIBILEGIO DESBERDINEN MANTENUA:
Familiarrak, sexualak, laboralak eta sozialak

MASKULINITATEA HEZKUNTZAN (sakonduz)

Genero-sozializazioa eta bakoitzaren identitatea zehazteko prozesua kontuan hartuta, **elkar-lotutako hiru indar botere** existitzen dira (eta hauek landu beharko genituzke):

- **ESLEIPEN SOZIALA:** *estruturalki bakoitzari ezarritako etiketak, kategoriak edota rolak, baieztapenekoak zein ezeztapenekoak. Hezkuntza-sisteman adibidez, hezkuntza-politika edota –programetan. (Maila “makroan”)*
- **KOMUNITATE PROPIOAREN AITORTZA:** *besteek ezarritako etiketak, kategoriak edota rolak. Hezkuntzan, berdinen artean, irakasleen edota familien partetik. (Maila “mesoan/mikroan”)*
- **JARDUN PERTSONALA:** *honetan erresistentzia aktibo edo pasiboko estrategiak garatzen dira, hau da, mutilek atxikimendu komunitario eta sozialari erantzuteko hartutako negoziazio-eta asimilazio-estategiak. (Maila “pertsonalean/indibidualean”)*

MASKULINITATEAREN AUTOERREGULAZIORAKO PRAKTIKA ARAUTZAILEAK

- Mutilek mutil eredu zehatz batean erlazionatzen, jarduten eta pentsatzen ikasteko duten prozesuan, **autoerregulazioaren eta praktika normalizatzailen zeregina funtsezkoa** da. (“Zer da mutila izatea?” etengabean)
- Maskulinitate "normal" edo desiragarri baten kontzeptua dute, eta maskulinitate (*heteroarautu*) hori **sozialki onargarriak diren formetan erakusten eta irudikatzen ikasten dute.**
- Ildo honetan, mutilen artean botere-harremanak daudela azpimarratu behar dugu, eta, beraz, eskolan bereziki, **arreta berezia jarri behar dugu mutilen bizipen eta harreman sozialetan maskulinitateen hierarkiak duen eraginean.**

MASKULINITATEAREN AUTOERREGULAZIORAKO PRAKTIKA ARAUTZAILEAK

Hortaz, **aztertu behar dugu nola jarduten duten faktore soziokulturalek, ekonomikoek eta pedagogikoek**, mutilek beren maskulinitateak irudikatzeko dituzten moduetan:

- Nola irudikatzen, elkar-lotzen eta negoziatzen dituzte mutilek maskulinitate modu jakin batzuk, eta zer nolako eragina du honek hauen eskola-bizipenetan? (*norbere sexualitatean, harremanetan, espazioetan,...*)
- Zer praktika hartzen dituzte mutilek ikastetxean maskulinitatearen agindu jakin batzuei aurre egiteko modu gisa? (*eskola porrota, bullying-a,...*)
- Zer eginkizun betetzen dute ikastetxeek mutilak beren maskulinitateak irudikatzeko moduarekin lotutako sailkapen bitar/dualista eta hierarkiko jakin batzuen finkapenean? (*autoritatearen gorpuztea, espazioen diseinua, gorputz-heziketa, lanbide orientazioa,...*)

MUTILAK, GORPUTZAK ETA MASKULINITATEA

- Gorputza maskulinitatearen praktika eta eraikuntzen normalizaziorako bitarteko (edo lurralde) gisa ulertu behar dugu. **Mutilek gorputz "normal" maskulinoari buruz dituzten ideiak** (*gihar-masa, zakilaren tamaina, ilea edota ibiltzeko zein hitz egiteko moduak barne*).
- **Gorputz-irudia edota "dekorazioa" maskulinitate "normal" eta "anormalaren" adierazle gisa:** mutilek arropak, bitxiak, makillajea eta auto-irudiarekin loturiko beste teknika batzuei buruz dituzten ideiek hauen maskulinitateak definitzen laguntzen dute.
- Ikastetxeak maskulinitatearen **erakusketa fisiko oldarkorrak erreproduzitzeko eta indartzeko espazio eraginkorrak** izan daitezke. (*Askorentzat eskola "gudu-zelaia" baita*)

- Gorputz maskulinoa = gorputz atletikoa = gorputz erakargarria = gorputz desiragarria
- Ondorioz, maskulinitate arautzaileak betearazi nahi dituen **eskakizun fisikoekin betetzen ez duten mutilentzat eskola leku ez segurua izan daiteke**. Mutil askok, beraz, biziraupenerako teknikak erabili behar dituzte, esaterako, oharkabean pasatzen saiatzea, beren barne-erresistentzia emozionala indartzea edota indarkeria bera erreproduzitzea. (*Adib: lodiak, baxuak, makalak,...*)
- Gorputz-espektatiba arautzaileetatik at kokatzen diren gorputzak, gorputz "ez baliozkotzat" hartzen dira, edo **gorputz-ekintza jakin batzuentatik, keinuengatik, posturengatik edo ahots-tonuengatik feminizatutako maskulinitatetzat** ere hartzen dira. Hauek femeninotzat edo homosexualtzat hartuz.

MASKULINITATEA ETA BERDINEN ARTEKO HARREMANAK

Eskoletan, **berdinen artean maskulinitateen hierarkia negoziatzen eta ezartzen da**; horregatik, interesgarria da arreta honako hauetan jartzea:

- **Berdinen talde batean baztertzeko/sartzeko irizpideetan**
Mutilek berdinen talde batzuetako kide izateko eskubidea irabazten dutelako edo ukatzen zaielako beren maskulinitatearen arabera.
- **Mutilek laguntasunaren mugak definitzeko eta negoziatzeko erabiltzen dituzten sailkapenetan**
Maskulinitate arautzaileak laguntasun-mota jakin batzuk ezartzeko mugak eta aukerak definitzen baititu. (“Ez baduzu hau egiten ez zara nire laguna” – erritu maskulinoak, feminitatearen ukazioaren araberako laguntasun-harremanak, eskolan ez/kanpoan bai...)

MASKULINITATEA ETA BERDINEN ARTEKO HARREMANAK

- **Laguntasunaren eta "kidegoaren" arteko aldea eta nola interpretazio/aurreiritzi homofoboek mutilen arteko intimitate-mailan eragiten duten.**

Kidegoa ("colegueo"/"camaradería") elkar ulertzean, interes komunetan, eta adostasunaren, uniformetasunaren, leialtasunaren, konfiantzaren eta babesaren diskurtsoan oinarritzen da, bai eta ondorengo premisa honetan ere: gizonen arteko lotura homosoziala dela soilik, eta ez intimitate afektibo, emozional edo sexualean oinarritutako lotura. Azken hau laguntasuna.

- **Mutilek neskekin duten laguntasuna adierazle gisa (bakarrik/taldean):**

Nola neskekiko harremanek beste mutilekiko harremanen intimitaterik eza orekatzeko joera duten.

MASKULINITATEA ETA ESKOLA-JAZARPENEA

- "Mutil normalen" portaera-arau edota erregulazioekin bat ez datozen mutilak jazarpen-jomuga bihurtzen dira.
- Jazarpena maskulinitatearen erritual edo praktika normalizatzaile gisa agertzen da, eta honek jazarpena eskola-bizipenetan legitimatzea dakar.
- Jazarpen-estrategia anitzak erabiltzea abusu gehiago ez jasateko edo hierarkian gora egiteko erritu gisa agertzen da.

MASKULINITATEA ETA ESKOLA-JAZARPENA

- Jazarpena, **gaiztoa/"malotea" edo zintzoa** izatearen arabera ere gertatzen da: maskulinitasun antiautoritarioa oinarri

Botere-egiturentzat ona bazara...txarra zara zure berdinentzat.

Botere-egiturentzat txarra bazara...ona zara zure berdinentzat.

- Baztertua bazaude, ez da gauza bera **eskandalosoa eta dibertigarria** izatea (subordinatua), edo **lotsatia eta barnerakoia** izatea (marginala).
- Maskulinitate-sailkapenak eta jazarpen-hierarkiak: **soslaiak menderatzailea/dominantea eta konplizea vs. subordinatua/menpekoa eta baztertua/marginatua**

**ESKU-HARTZERAKO
ESPAZIOAK ETA
PRAKTIKAK**

ERALDAKETARAKO GAKOAK NON BEREZIKI?

- BOTERE MASKULINOAREN ONDORIOETAN ETENGABEKO ARRETA JARTZEA
- MUTILEN ORDEZKARITZA eta PARTE-HARTZEA NEURTZEA
- MUTILEN ZAURGARRITASUNA ETA AHULGUNEAK LANTZEA
- ADIMEN EMOZIONALAREN GARAPENA: SENTITZEA, ONARTZEA ETA ELKARBANATZEA
- LAGUNTZA ETA BABESAN ESKAERAN AZPIMARRA
- GATAZKAK KONPONTZEKO BORTITZAK EZ DIREN METODOAK SUSTATZEA
- TRADIZIONALKI “FEMENINO” BEZALA ETIKETATUTAKO EZAUGARRI, JARRERA ETA PORTAERAK IKASTEAK, ONARTZEA ETA BALIOAN JARTZEA.

ESKU-HARTZERAKO ESPAZIOAK ETA PRAKTIKAK

❑ MASKULINITEEI BURUZ GALDETZEA

- Haur eta gazteek beren maskulinitateak ezagutzeko eta espektatiba sozialen beren bizitzetan dituzten ondorioak baloratzeko espazioak sortzera bideratutako ikuspegia eta estrategiak txertatu.
- Hau gure proiektuen baitan, eta ez, sinbolikoki eta fisikoki eguneroko praktika pedagogikoetatik at dagoen programa edo esku-hartzea espezifikoki baten barruan.
- Hezitzaileek beren curriculum ezkutua galdetzea.

❑ MUTILEI MASKULINITEAK BERAIENGAN EDUKI DEZAKEEN ERAGINA AUTOBEHATZEKO ERRAMINTAK EMAN

- Autozaintza eta osasuna
- Harremanak (intimitate-maila, asebetetzea, onurak eta deserosotasunak,...)
- Besteekiko duten entzuketa maila
- Beraien parte-hartze maila
- Beraien gorputzarekiko eta besteen gorputzekiko balorazioari buruzkoa
- Beraien esfortzu, konpromiso eta ardura-mailari buruzkoa

MASKULINITATE PAREKIDEEN EZAUGARRIAK

- ZAURGARRITASUNA ETA AHULGUNEAK ONARTZEA
- ADIMEN EMOZIONALA GARATZEA: SENTITZEA, ONARTZEA ETA ELKARBANATZEA
- LAGUNTZA ETA BABESA ESKATZEA
- GATAZKAK KONPONTZEKO BORTITZAK EZ DIREN METODOAK ERABILTZEA
- GIZA GARAPEN INTEGRALERAKO BEHARREZKOAK DIREN TRADIZIONALKI “FEMENINO” BEZALA ETIKETATUTAKO EZAUGARRI, JARRERA ETA PORTAERAK IKASTEAK, ONARTZEA ETA BALIOAN JARTZEA
- GIZONEN ARTEKO INTERPELAZIOA ETA PEDAGOGIA

□ ESPAZIO FISIKOAK AZTERTZEA eta HAUETAN DAUDEN ROLAK, ADIERAZPENAK ETA DISKRIMINAZIOAK AZTERTZEKO MOMENTUAK SORTU

□ FAMILIA EDOTA SARE AFEKTIBOA GAKO NAGUSIA

Gure mutilen sare afektibo eta familiarretan gertu dituzten gizonak erakartzea

□ MORALISMOAK SAIHESTEA

□ EZOHIKOTASUNETIK ETA EZOHIKOTASUNERAKO HEZI: NORMALA MAHAIGAINEAN EZ DESBERDINA

ERRONKA NAGUSIAK

- Hezkuntzan generoaren izaera arautzailea argitara ekartzen hastea, errotik eta era sakonean.
- Hezkuntza prozesu afektibo bezala ulertzea, ez soilik kognitiboa.
- Hezitzaileen partetik autoritatearen birplanteamendua egitea.
- Mutilek mutil izate hutsagatik dituzten pribilegioen etengabeko errebisio sakona egitea: sozialak, familiarrak, sexualak,...

ERRONKA NAGUSIAK

- Lora daitekeen politikoki zuzena den diskurtsoaren aurrean indarkeria sinbolikoak argitara ekartzen hastea.
- Mutilek, kolektiboki, beste mutilen jarrerak kritikatzeko eta salatzekeo tresnak eskuratzea.
- Lanketa bera gako positiboetan eta abantailen planoan zentratzea (ez bakarrik aspektu negatiboetan edota galeretan)

ESKERRIK ASKO!

KONTAKTURAKO

ibai@hirukilarroxa.eus

www.hirukilarroxa.eus

